



ARANTZako UDALA

www.arantzako.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantzako.udala@terra.es

2013KO MARTXOAREN 7KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2013.03.07.

Ordua: Arratsaldeko 19:00ean.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-M.Asuncion Bereau Vergara andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Purificacion Leiza Petrirena andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Ordoqui Leiza senideak: oihan probetxamendu eskaera.
- 5.-Nafarroako Ondarearen defentsarako Plataformaren idatzia.
- 6.-Mendiko lanen diru laguntzak.
- 7.-Usua Ehiztarien Kirol Elkartearen idatzia.
- 8.-Korrika: diru laguntza eskaera.
- 9.-Argia Ikastola: Nafarroako Oinez antolatzeke diru laguntza eskaera.
- 10.-Elgorriagako Udala: liztor asiaticoari buruzko akordioa
- 11.-Presoen egoeraren inguruko mozioa.
- 12.- Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkariak izendatzea.
- 13.-Plazako piboteak.
- 14.-Gizarte Batzordeko proposamenak.
- 15.-Wifiren afera.
- 16.-Pellettikiko egoera.
- 17.-Eskolako obrak.
- 18.-Alkatearen ebazpenak.
- 19.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.

2013ko urtarrilaren 30ean eta otsailaren 14an egindako bileren aktak ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DITUZTE.

2.-M.ASUNCION BEREAU VERGARA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

M.Asuncion Bereau Vergara andreak Errotaberri alderdian zuhaitzen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (alerzeen entresaka): 6. poligonoko 180. lur zatian.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) M.Asuncion Bereau Vergara andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-PURIFICACION LEIZA PETRIRENA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Gai hau mahai gainean utzi da hobeto aztertzeko.

4.-ORDOQUI LEIZA SENIDEAK: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Ordoqui Leiza senideek Eskibo alderdian zuhaitzen probetxamendua egiteko (pinuen matarrasa) eskaera ikusirik: 2. poligonoko 22.,23., 24., 26. eta 264. lur zatietan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Ordoqui Leiza senideak eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

5.-NAFARROAKO ONDAREAREN DEFENTSARAKO PLATAFORMAREN IDATZIA.

Ikusirik Agoitzeko Udalak bildalitako akordioa, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformaren izenean, Hipoteka Legearen gehiegizko erabileraren bidez Nafarroan Artzapezpikutzak bere izenean jarritakoak bertan behera uztea, eta bertetik, ondare historiko horren jabetza Nafarroako herriena dela aitortzea.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Nafarroako Gobernuak herrialdeko udalerriei informazio juridiko eta historikoa eskaintzea, beren herri-ondarearen informazio juridiko eta historikoa eskaintzea, bere herri-ondarearen jatorri eta eskubideei buruzkoa, eta Eliza katolikoak bere izenean jarritako ondasunak berreskuratu nahi dituzten Udal eta Kontzejuei laguntza ematea.

2) Nafarroako Gobernuak diru publikoarekin egiten dituen inbertsioen berri ematea, Eliza katolikoak bere izenean jarritako ondare nafarra konpondu, hobetu eta zaintzeko, ehunekotan argi zehaztuz zenbatekoa den Nafarroako Gobernuaren, Estatuaren eta tokiko erakundeen



ekarpen publikoa, kostu osoarekiko. Nafar herritarrek eskubidea dute jakiteko zer punturaino ordaintzen eta baimentzen dituzten, kasik erabat, Elizak pribatizaturiko ondareak.

3) Akordio honen berri ematea Aoiz-Agoitzeko Udaleko Alkatetzari.

6.-MENDIKO LANEN DIRU LAGUNTZAK.

Duela gutxi Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Sailak, baso jarduerarako dirulaguntzak ezeztatu egin ditu, baso ekintzen dirulaguntzen murrizketa etengabearen ondorioz.

Nafarroako basoak egoki mantzentzeko, diru laguntza hauek beharrezkoak dira, gure basoen geroa eta iraunkortasuna mantendu ahal izateko. Honetaz gain, 400 lanpostu zuzen mantentzeko funtsezkoak dira.

Egoera honengatik Nafarroako Basogintza Taldea sortu egin da; ehunetik gorako baso sektoreko entitateen bermea duenak, besteak beste Tokiko Administrazioak, beste baso lurren jabeak, basolan enpresak eta ingenieritzak.

Basogintza talde honek, Nafarroako Baso Sektore muinetik sortua da, interes partikularrik gabeko eta erakunde apolitiko bezala sortua da. Baso sektoreko ordezkari guztiak barne dituen eta ordezkari berriak (Tokiko administrazioak, partikularrak, enpresak, kabineteak, etb.) jasotzeko prest dagoena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Toki Administrazioako, Ingurumeneko eta Landa Garapeneko Departamentuak indargabetu edo ezaba dezala "Toki Entitateentzako eta Partikularrentzako Baso Lanetarako Laguntza. 2013-2014 Kanpaina" deialdia bertan behera utzi duen ebazpen, akordio edo erabakia, deialdiak zabalik jarrai dezan, eta tokiko entitateek eta partikularrek basogintza-lan aurreikusiak egiten segi dezaten.

2) Era berean, indargabetu dadila 2012-2013 kanpainako espedienteen erdiak baino gehiago kontusailik gabe utzi dituen akordio, ebazpen edo erabakia, lanak hasita egonik ere.

3) Behar hainbateko kontusailaz horni dadila Toki Administrazioako, Ingurumeneko eta Landa Garapeneko Departamentua edo kasuko atala, mozio honetako 1. eta 2. puntuetan aipatutako ildoekin bat, 2012-2013 eta 2013-2014 kanpainetako espedientei eta aitzineko kanpainetatik heldu diren atzerapenei aurre egiteko.

4) Berma dadila aurrekontuen kontusail horien jarraipena, behar hainbateko dirutzaz horniturik, etorkizuneko PAC edo Europar Batasunaren Nekazaritza Politika indarrean dagoen bitartean. Azken PAC hori berrikitan onetsi da eta 2020ra bitarteko indarraldia izanen du.

5) Zuritu eta aztertu dadila zer bilakaera izan duten aurrekontuetako gainerako dotazioek hasierako azalpenean aipatutako beste ekimenetan (herri mendien antolamenduak, zuzeneko inbertsioak baso-ingurunean, abeltzaintza-azpiegiturak hobetzea, erreka-ibilguak mantentzea...) eta bilakaera horri buelta ematea, arestian azaldu duguna oinarri harturik.

6) Eman dakiela eragile nagusietako ordezkari zilegituei erabakiak hartzeko prozesuetan esku hartzeko aukera, bai eta sektoreetako estrategien osaketan zuzenean parte hartzeko ahalmena ere. Halaber, behar bezalako informazioa eman dakiela, munta handiko erabakiak hartzeko direnean; finantzaketarako ildo estrategikoak bertan behera uzten direnean, adibidez.

7) Akordio hau Nafarroako Basogintza taldeari eta Cederna-Garalur elkarteari jakinaraztea.

7.-USUA EHIZTARIEN KIROL ELKARTEAREN IDATZIA.

Ikusirik Usua Ehiztarien Kirol Elkarteak aurkeztutako idatzia, ehizerako barrutian zaindaria derrigortzen duen arauari buruz.

Ikusirik Bilduk bidalitako proposamena gai honen inguruan, Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legea aldatzeko eta, ondorioz, xedapen iragankorra onartzea eduki honekin, bertzeak bertze :2016ko martxoaren 31a arte kotoko zaintzailea borondatezkoa izanen da.

Aho batz, ERABAKI DUTE:

- 1) Bilduk bidalitako proposamena onartzea.
- 2) Akordio hau jakinaraztea Usua Ehiztarien Kirol Elkarteari.

8.-KORRIKA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik 2013ko martxoaren 14tik 24ra Korrika 18k Euskal Herria zeharkatuko duela.

Ikusirik aurkeztutako diru laguntza eskaera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 400,00 euro ordaintzea Korrikan parte hartzeagatik.

9.-ARGIA IKASTOLA: NAFARROAKO OINEZ ANTOLATZEKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Argia Ikastolak aurkeztutako idatzia, Nafarroa Oinez 2013rako diru laguntza eskatuz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Argia Ikastolari 200,00 euroko diru laguntza ematea.

10.-ELGORRIAGAKO UDALA: LIZTOR ASIATIKOARI BURUZKO AKORDIOA.

Ikusirik Elgorriagako Udalak bidalitako akordioa liztor asiaticoari buruz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako akordioa onartzea, hau da, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuari behar diren neurriak hartzeko eskatzea eta plaga honekin bukatzeko errekursoak jartzea, bizilagunei babesa emanez.

2) Akordio hau Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

11.-PRESOEN EGOERAREN INGURUKO MOZIOA.

Ikusirik presoeri buruzko mozioa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak, aho batez, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren 197/2006 doktrina (Parot doktrina gisa ezagutu dena) ez legezkoa eta oinarritzko eskubideen aurkakoa dela ebatzi ondoren, berau egikaritzeko exijitzen dugu, Ines del Rioen kasuan ezezik, aipatutako doktrina aplikatu zaien euskal preso guztien kasuan ere. Ondorioz eta nazioarteko giza eskubideen legea aplikatuz, 197/2006 doktrina aplikatu zaien euskal preso guztiak berehalakoan aske uzteko eskatzen dugu.



ARANTZako UDALA

www.arantzako.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantzako.udala@terra.es

2) Euskal Herrian bizi dugun itxaropen eta konponbide aukeraren aurrean, euskal presoan aurkako salbuespeneko legeria bertan behera uzteko eskatzen du udal honek.

3) Erabaki honen berri, Espainiako Auzitegi Konstituzionalari eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalari ematea erabakitzen da.

12.- UDALAREN ESKUMENEAN DAUDEN KIDE ANITZEKO ORGANOETARA JOAN BEHARREKO UDALAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

2013ko otsailaren 14an Arantzako Udalak jakin zuen eta onartu Imanol Artola Guridi zinegotzi jaunaren dimisioa.

Kontuan hartuz Imanol Artola Guridi jauna Arantzako Udaleko ordezkaria zela Cederna-Garalur elkartean.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Koldobike Gorostiza Uriguen andrea Cederna-Garalur elkarteko ordezkaria izendatzea.

13.-PLAZAKO PIBOTEAK.

Kontuan hartuz herrian zehar piboteak hautsiak daudela.

Kontuan hartuz Herriko Plazako loreontziak ez direla nahiko ibilgailuak plazako barruko eremuan ez aparkatzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Hautsiak dauden piboteak ordezkatzeko eta Herriko Plazan piboteak edo metalezko edota egurrezko lore ontzien aurrekontuak eskatzea gehiago jartzeko.

14.-GIZARTE BATZORDEKO PROPOSAMENAK.

Koldobike Gorostiza andreak azaldu du Gizarte Batzordearen ondoko proposamenak:

-Ekaina, uztaila, abuztua eta irailan herriko produktuekin osatutako merkatua martxan jartzea (bakarrik barazkiak eta dena ongi etiketatua; ezin da saldu lukainkarik, arraultzarik ez eta etxean enbasatutako latarik). Hilero 2 asteburutan.

-Nafarroako istoriaren inguruko solasaldia, Fermin historialariaren eskutik.

Udalak, horren truke, berari, bere emaztea eta semeari loaldi bat eta gosaria ordainduko die.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Gizarte Batzordeko proposamenak onartzea.

15.-WIFIREN AFERA.

Gai hau hurrengo bilerarako uzten da.

16.-PELLETTIKIKO EGOERA.

Koldobike Gorostiza andreak azaldu du Pellettikiko umeen kopurua igo dela dexente eta apirilatik uztaila bukaera arte 9 haur izanen direla. Gaineratu du ume gehiagorik ezin duela bera bakarrik zaindu.

Denek jakinarez gainean gelditu dira.

17.-ESKOLAKO OBRAK.

Alkateak azaldu du Hezkuntza Departamentuan egindako bileran gela kopurua handitzeko beharrari buruz. Erran du obrak bi fasetan egingen direla eta berriro bertze bilera egingen dela aurrekontuak eta aztertzeke.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Eskolako zuzendariarekin eta Guraso Elkarteko buruarekin bilera egitea martxoaren 11n, gaia aztertzeko.

18.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2013ko 8tik 11 arte).

19.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

20.-HERRIKO OIHAN PROBETXAMENDUA.

Ikusirik mendizainak prestatutako idatzia, herriko zuhaitzen probetxamendua egiteko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Gobernuari baimena eskatzea aipatutako probetxamendua egiteko.

21.-MARTXOAREN 8KO MANIFESTUA.

Kontuan hartuz martxoaren 8an emakumeen eguna ospatzen dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lanean jarraitzeko konpromisoa adieraztea eta erakundeek eta kolektiboek antolatutako ekitaldietan parte hartuz.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Jaime Iturria Mitxelena jn.

